

<b>BALORAZIO IRIZPIDEAK</b>	<b>Gehieneko puntuazioak / murrizketa partzialak</b>
<p>Baldintza formalak betetzen ez baditu:  “Programazio didaktikoak gehienez ere 50 folio izanen ditu, DIN-A4 formatuan, alde bakar batetik idatziak, lerroarte arruntarekin, 12 puntuko Arial letra erabiliz, konprimatu gabe. Grafiko, taula, orri-oin eta goiburuetan 10 puntuko Arial letra erabiltzen ahalko da.  Azala nahi bezala diseina daiteke. Gutxienez ere 10 unitate didaktiko zenbakidun eduki beharko ditu. Programazio didaktikoaren azala, kontrazala eta aurkibidea ez dira zenbatuko 50 folio horien barnean”.</p>	<p>Probaren A zatiaren balioaren % 50eko murrizketa</p>
<b>Gaiaren antolaketa</b>	<b>2 puntu</b>
Programazioaren aurkezpena eta justifikazioa egitea eta Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dagoen curriculumaren arabeko testuingurua ematea.	Puntu 1
Ongi planteatuak daude programazioa osatzen duten elementuak, atalen koherentzia eta proposatzen duen sekuentziazioaren logika.	Puntu 1
<b>Eduki teknikoa:</b>	<b>2 puntu</b>
Programazioak curriculum elementuak zehazten ditu, mailaren arabera.	Puntu 1
Programazioak ebaluazio irizpideak eta ikaskuntzaren estandarrak zehazten ditu, bai gaitasunak eskuratzeari dagokionean, bai helburuak eta ikaskuntzaren emaitzak erdiesteari dagokionean.	Puntu 1
<b>Eduki didaktikoa:</b>	<b>6 puntu</b>
Ikasmailarako egokiak diren metodologia, materialak eta baliabide didaktikoak. Aniztasunari erantzuteko neurri koherenteak eta egokiak.	1,5 puntu
Prozedurak, lanabesak, tresnak eta ebaluazioari lotutako bestelako alderdiak zehaztea, Nafarroako Foru Komunitatean ebaluazioaren arloan indarrean den araudiari jarraituz.	1,5 puntu
Aniztasunari erantzuteko neurriak, arreta berezia jarriz hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleentzako neurriak.	1,5 Puntu
Programazioa modu argian azaltzea.	1,5 puntu
<b>Zuzentasun ortografikoa (murrizketa)</b>	<b>2 puntu</b>
Ortografia akatsak	
Azentuak gaizki jartzea	
Gramatika akatsak	
<p>Programazio didaktikoa izangaiak egin behar duenez, eta horrek lan pertsonala eta indibiduala eskatzen duenez, programazio plagiatuak aurkezteak edo izangai batzuek programazio didaktiko bera aurkezteak esan nahi du hori egiten duten izangaiak zero puntuko kalifikazioa lortu behar dutela probaren zati honetan.</p>	